



SEXU MUXU

KOITO ONDORENGO PILULA

(Biharamuneko pilula)

SEXU MUXU

Zer da? Zertarako balio du?

Koito ondorengo pilula, «biharamuneko pilula» ere esaten zaiona, eraginkortasun handiko larrialdiko tratamendua da, nahi ez den balizko haurdunaldia eragozteko, penetrazioa barne izan duen babes gabeko sexu-harremana izan bada.

EZ DA OHIKO METODO ANTISORGAILUA ETA EZ DU SEXU TRANSMISIOKO INFEKZIOETATIK (STI) BABESTEN.

Larrialdiko tratamendua da, koitoa barne izan duen sexu-harremanaren ondorengo 72 orduetan erabili dezakezuna, zenbat eta lehenago, hobe. Kontuan izan behar da 24 ordu igaro baino lehen hartzen denean duela eraginkortasun handiena.

Gogora ezazu!

Hiru egun baino gehiago (72 ordu) igaro badira babes gabeko koitoa izan zenuela, ez hartu koito ondorengo pilularik. Zoaz zure osasun-zentrora pertsona kualifikatuek aholka zaitzaten eta egun daitezkeen aukerak balioetsi ditzazun.

Zer egin behar da?

Preserbatiboa hondatu baldin bazaizue edo babes gabeko harreman koitala izan baduzu, zoaz, lehenbailehen, ondorengo hauetakoren batera:

- *Zure osasun-zentrora
- *Larrialdiko edozein zerbitzutara
- *Gazteen kontsultara
- *Familia-plangintzako zentro batera

Nola erabili behar da pilula? Zer gertatzen da gero?

Gaur egun, konprimitu bakarreko bilgarrian etortzen da, hau da, pilula bakar bat izaten da. Hobe da zerbait jatea pilula hartu aurretik, izan daitezkeen albo ondorioak murrizteko lagungarri izango baitzaigu.

*Pilula hartu ondorengo hiru orduen barruan botaka egiten baduzu: beste pilula bat hartu behar duzu lehenbailehen.

*Pilula hartu duzunik hiru ordu baino gehiagora botaka egin baduzu: ez kezkatu, pilulak egin



SEXU MUXU

du bere lana.

*Pilula hartu ondorengo egunetan:

-Baliteke baginako odol jarioren bat izatea.

-Litekeena da odol jario hori hurrengo hilekoarekin batera gertatzea. Kasu horretan, komeni da errebisio ginekologiko bat egitera joatea, kontrola zaitzaten eta metodo antisorgailuei buruzko aholkuak eman diezazkizuten.

-Hilekoa ez bazaizu espero duzun datan jaisten, medikutara joan behar duzu haurdun testa egitera.

Nola egiten du lan pilulak?

Penetrazioa barne izan duen sexu-harremana izan baldin baduzu, babesik gabe, gerta liteke obulu bat ernalduta izana edo ez izana, ez dago jakiterik. Kasu horretan, koito ondorengo tratamenduak obulazioa eragozten du, oraindik gertatu ez bada, eta ernalduta izan bada, berriz, ez dio uzten obulu ernalduari umetokian txertatzen. Bistan dago, horrela, haurdunaldia abiaraztea ekiditen dela.

Albo ondorioak

Goragalea eta botaka egitea dira koito ondorengo pilularen ondorio txar arruntenak. Pilula hartu **ondorengo hiru orduen barruan** botaka egin bada, baliteke tratamenduak efekturik ez egitea.

Ohikoak izaten dira, pilula hartu ondoren, zazpi egun baino gehiagoz **hilekoa atzeratzea**, baginako odol jario irregularrak, bularretan sentiberatasun handiagoa izatea, nekea, zorabioak, eta sabeleko zein buruko minak ere.

Emakume batzuek beste nahasmendu batzuk ere adierazi dituzte: urtikaria, aurpegiko azkura, aurpegia handitzea...

Ondorio txar horiek, gehienetan, pilula hartu denetik 48 ordutara desagertu ohi dira, nahiz eta bularretako sentiberatasunak eta odol jario irregularrek hurrengo hilekoa jaitsi arte iraun dezaketen.



SEXU MUXU

Abortatzeko metodoa al da tratamendu hau?

Osasunaren Mundu Erakundearen definizioaren arabera –nazioarteko zientzia komunitatea bat dator definizio horrekin–, «*haurdunaldia obulu ernaldia endometrioan (umetokiaren pareta) txertatzen den momentuan abiatzen da.*» Aurretik aipatu dugun bezala, koito ondorengo tratamenduak obulazioa eragozten du, oraindik gertatu ez bada, eta, ernaldia izan bada, berriz, ez dio uzten obulu ernalduari umetokian txertatzen. Esan daiteke, hortaz, haurdunaldia abiatu aurretik lan egiten duela. OMEren arabera, «*larrialdiko kontrazepzio metodoek* modu desberdinetan eragozten dute haurdunaldia, menstruazio zikloa zer unetan dagoen, baina ez dute jada txertatua dagoen umekirik erazten, **EZ ETA ABIATUTAKO HAURDUNALDIA ETETEN UZTEN ERE**».

Metodo hori ez da nahastu behar, haurdunaldia diagnostikatuta dagoela, berori eteteko ematen den abortatzeko tratamenduarekin (RU-486).

Zer egin hartu ondoren?

Larrialdiko antisorgailua erabili ostean, garrantzitsua da **espezialista batengana** jotzea, komeni zaizkizun kontrazepzio moduei buruz aholka zaitzan, batez ere, pilula antisorgailua edota partxea erabiltzeko ohitura baldin baduzu, arriskuko pasartearen ondoren. Edo metodo bat nola erabili argitu diezazun.

Gainera, babes gabeko harremanak izaten badituzu, sexu-transmisioko gaixotasunak harrapatzeko arriskuan zaude; horregatik, komeni da zure osasun ginekologikoa aldizka kontrolatzea.